



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko maiatzaren 18a

71. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Zizur Nagusiko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2014ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina (2. or.).
- Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrazio-kudeaketako maila ertaineko teknikari lanpostu bat oposizio bidez eta txanda irekian betetzeko (22. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Zizur Nagusiko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2014ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 4an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Zizur Nagusiko Udalari buruzko fiskalizazio txostena egin du, 2014ko ekitaldikoa.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

1. txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Zizur Nagusiko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2014ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (3. or.).
- II. Helburua (5. or.).
- III. Norainokoa (5. or.).
- IV. 2014ko kontu orokorrari buruzko iritzia (6. or.).
 - IV.1. Udalaren 2014ko ekitaldiko kontu orokorra (7. or.).
 - IV.2. Legezketasunaren betetzeari buruzko iritzia (7. or.).
 - IV.3. Udalaren 2014ko egoera ekonomiko-finantzarioa (7. or.).

IV.4. Aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzea (10. or.).

IV.5. Aurreko txostenetan Kontuen Ganberak emandako gomendioen betetze-maila. (10. or.).

V. Udalaren 2014ko kontu orokorraren laburpena (11. or.).

V.1. 2014ko aurrekontu bateratuaren betetzearen egoera-orria (11. or.).

V.2. 2014ko aurrekontu bateratuaren emaitza (12. or.).

V.3. Diruzaintza-gerakin bateratuaren egoera-orria 2014ko abenduaren 31n (12. or.).

V.4. 2014ko abenduaren 31ko egoera-balantze bateratua (13. or.).

V.5. Galeren eta irabazien kontu bateratua 2014an (14. or.).

VI. Udalari eta haren menpeko enteei buruzko iruzkinak, ondorioak eta gomendioak (15. or.).

VI.1. Alderdi orokorrak (15. or.).

VI.2. Langileak (15. or.).

VI.3. Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak (17. or.).

VI.4. Transferentzien ondoriozko gastuak (17. or.).

VI.5. Inbertsioak (18. or.).

VI.6. Aurrekontuko diru-sarrerak (18. or.).

VI.7. Hirigintza (20. or.).

VI.8. Erakunde autonomoak (20. or.).

Zizur Nagusiko Udalaren urteko kontu bateratuen oroitidazkia, 2014ko abenduaren 31ri dagokiona.


(Oharra: Aipatutako eranskina foru parlamentarien esku dago Legebiltzarreko Zerbitzu Orokortako bulegoetan eta honako web helbidean: www.cfnavarra.es/camara.comptos).

I. SARRERA

Bere jarduketa-programari jarraituz, Kontuen Ganberak Zizur Nagusiko Udalaren eta haren menpeko enteen 2014ko kontu orokorraren arauzkotasunari buruzko fiskalizazioa egin du.

Zizur Nagusiko udalerriak 5,5 km²-ko azalera du, eta 2014ko urtarrilaren 1ean, 14.253 biztanle dauzka.

Udalaren eta haren menpeko erakundeen osaera ondoko grafikoan agertzen da:



2014ko ekitaldia ixtean, erakunde horien guztien funtsezko datu ekonomikoak honako hauek ziren:

Entitatea	Aitortutako betebeharrak	Aitortutako eskubi-deak	Langileak, 2014-12-31n
Udala	11.702.649	9.956.496	105
Ardoi Kirol Patronatua	544.293	538.091	-
Kultur Patronatua	394.986	430.872	-
Musika Eskolaren Patronatua	498.718	495.749	14
Bateratzearen doitzeak	-665.921	-665.921	-
Bateratua, guztira	12.474.725	10.755.287	119

Udalak bere erakunde autonomoentzat 2014an egin dituen ekarpenak hauek izan dira: Ardoi Kirol Patronatuari, 183.772 euro; Kultura Patronatuari, 251.541 euro; eta Musika Eskolaren Patronatuari, 230.608 euro. Ekarpeneak, orokorrean, ehuneko 23 egin dute gora 2013an jasotakoekin alderatuta.

Udala sarturik dago Iruñerriko Mankomunitatean, eta horrek ematen ditu uraren ziklo integralaren zerbitzuak, hiri-hondakin solidoen kudeaketa- eta tratamendu-zerbitzuak, eskualdeko hiri-garraiokoa nahiz taxikoa eta ibai-parkearen kudeaketakoak. Eskualdeko garraioaren zerbitzuak 257.296 euroko kostua ekarri dio Udalari.

Laburbilduta, ematen dituen zerbitzu publiko nagusiak eta haiek emateko modua ondoko taula honetan ageri dira:

Udal zerbitzuak	Udala	ERAKUNDE AUTONOMOAK	Mankomunitatea, Partzuergoa	Zerbitzuen kontratuak	Errentamenduak
Zerbitzu administratibo orokorrak	X				
Oinarrizko gizarte zerbitzua	X				
Etxez etxeko laguntza zerbitzua	X				
Genero indarkeriaren prebentzioa				X	
Lehen eta bigarren hezkuntzako hezkidetzak programak				X	
Berdintasun zerbitzuak	X				
Tokiko enplegu eta garapen zerbitzuak	X				
Kirolak	X	X			
Kultura	X	X			
Musika eskola		X			
Hirigintza	X			X	
Lorategiak	X			X	
Uraren ziklo integrala			X		
Hiri hondakinak			X		
Garraio publikoa			X		
Haur hezkuntzako zentroaren zerbitzua, 0-3 urteko zikloa	X			X	
Kultur Etxearen kudeaketa	X			X	
Udal eraikinaren garbiketa eta mantentzea				X	
Kale garbiketa				X	
Kirol instalazioen funtzionamendua				X	
Kirol instalazioetako taberna-jatetxearen kudeaketa					X
Udal ludoteka	X			X	
Kultur Etxeko taberna-jatetxearen kudeaketa					X
Gaztetxearen kudeaketa	X			X	
Hiriko udalekuaren kudeaketa	X			X	
Diru-bilketa exekutiboa	X			X	

Toki entitateari 2014ko ekitaldian aplikatzekoa zaien araubide juridikoa funtsean honakoek osatzen dute: Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1995 Legea, bai eta sektorekako araudi indarduna ere.

Entitatearen aurrekontua 2014ko urtarrilaren 30ean onetsi zuen Udalaren Osoko Bilkurak. 2015eko apirilaren 30ean, Osoko Bilkurak 2014ko ekitaldiko kontu orokorra onetsi zuen.

Txostenak sei atal ditu, sarrera hau barne. Bigarren atalean, txostenaren helburuak azaltzen dira, eta hirugarrenean, berriz, egindako lanaren norainokoa. Laugarrenean, 2014ko kontu orokorraren inguruko gure iritzia agertzen da. Bosgarrenean, Udalaren finantzen egoera-orri nagusien laburpen bat. Azkenik, seigarren atalean, erakundearen antolaketa eta Udalaren barne-kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin, ondorio eta aholkuak biltzen dira, arloz arlo.

Halaber, eranskin bat gehitu da Udalak 2014ko ekitaldiko kontuei buruz egindako oroitidazkiarekin.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Zizur Nagusiko Udaleko eta haren erakunde autonomoetako langileei lan honetan emandako laguntzagatik.

II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Zizur Nagusiko Udalaren 2014ko ekitaldiko kontu orokorraren arauzkotasunari buruzko fiskalizazioa egin dugu.

Txostenak helburu du honako puntu hauei buruzko gure iritzia agertzea:

- Ea Zizur Nagusiko Udalaren 2014ko ekitaldiko kontu orokorrak irudi zehatza erakusten duen alderdi esanguratsu guztietan, hots, ondareari, gastu eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioari eta 2011ko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaitutako urteko ekitaldian egindako eragiketen emaitzei dagokienez ere, betiere aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz.
- Udalak eta bere erakunde autonomoek 2014an izandako finantza-jarduerari aplikatzekoa zaion legeriaren betetze-maila.
- Udalaren finantza-egoera 2014ko abenduaren 31n.
- 2014ko ekitaldirako aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasuneko helburuen betetzea, eskuragarri dagoen informazioari jarraituz.
- Ganbera honek 2013ko fiskalizazio-txostenean eman zituen gomendioak noraino aplikatu diren.

Txostenari erantsi zaizkio, halaber, egokitzat jotzen diren aholkuak, Udalak eta haren menpeko enteei ezarritako barne-kontrolako sistema, sistema administratiboa eta kontabilitate- nahiz kudeaketa-sistemak hobetu edo/eta osatze aldera.

III. NORAINOKOA

Zizur Nagusiko Udalaren 2014ko ekitaldiko kontu orokorrak hauek ditu osagai nagusiak:

- Entitatearen beraren eta haren erakunde autonomoen kontua: aurrekontuaren betetze-mailari buruzko egoera-orria, ekitaldiko aurrekontu-emaitza, diruzaintza-gerakina, egoera-balantzea eta emaitzen kontua.
- Kontu orokorraren eranskinak: egoera-orri bateratuak (Udala eta erakunde autonomoak), oroitadazkia eta zorraren egoera-orria.

Lana Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Kontuen Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan garatutako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta arauari jarraituz gauzatu da; zehazki, honakoak aplikatu dira: "Fiskalizazio edo auditoria finantzarioaren oinarrizko printzipioak" izeneko ISSAI-ES 200 araua eta "Betetzeari buruzko fiskalizazio- edo auditoria-printzipio nagusiak" izeneko ISSAI-ES 400 araua. Inguruabarren eta azterlanaren helburuen arabera, beharrezkotzat jo ditugun hautaprobea edo prozedura tekniko guztiak aplikatu ditugu; prozedura horien artean laginen teknika edo kontusail edo eragiketa jakin hautatuak aztertze teknika erabili dira.

Zehazki, Udalari eta bere erakunde autonomoei dagokienez, aurrekontuen eta finantzen egoera-orrien edukia eta koherentzia aztertu dira, bai eta aplikatutako oinarrizko prozedura administratiboak ere; ebaluatu dira, halaber, antolaketa, kontabilitate eta barne-kontrolako alderdi nagusiak.

IV. 2014ko KONTU OROKORRARI BURUZKO IRITZIA

Zizur Nagusiko Udalaren 2014ko ekitaldiko kontu orokorra fiskalizatu dugu. Haien kontabilitatearen egoera-orriak laburbilduta jaso ditugu txosten honetako V. atalean.

UDALAREN ERANTZUKIZUNA

Alkatea da kontu orokorrak aurkezteko ardura duena. Halako moduz egin behar ditu non leialki irudikatuko baitituzte Udalaren aurrekontu-likidazioa, ondarea, emaitzak eta finantza-egoera, aplikatzekoa den finantza-informazio publikoari buruzko arau-esparruarekin bat; erantzukizun horrek hartzen ditu iruzurraren edo akatsen ondoriozko ez-betetze materialetatik libre dauden kontu orokorrak egin eta aurkezteko beharrezkoa den barne kontrolaren kontzepzioa, ezarpena eta mantentzea.

Udalak, gainera, bermatu beharko du finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela indarreko araudiarekin.

NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA

Gure erantzukizuna da iritzi bat adieraztea erantsitako kontu orokorren fidagarritasunari buruz eta gure fiskalizazioan oinarrituta egin diren eragiketen legezkotasunari buruz. Horretarako, hura egin dugu Kanpo Kontroleko Erakunde publikoen fiskalizaziorako oinarritzko printzipioen arabera. Printzipio horiek exijitzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, bai eta fiskalizazioaren plangintza eta exekuzioa egin dezagula ere, honako helburuarekin: kontu orokorretan arrazoizko segurtasun bat lortzea eta haietan akats materialik ez egotea; eta finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa, alderdi adierazgarri guztietan, arau indardunen arabera izatea.

Fiskalizazio batek eskatzen du prozedura batzuk aplika ditzagula auditoria-ebidentzia bat lortzeko zenbatekoei eta kontu orokorretan adierazitako informazioari buruz, bai eta eragiketen legezkotasunari buruz ere. Hautatutako prozedurak auditorearen irizpidearen arabera dira, horren barne dela kontu orokorren akats materialei buruzko arriskuen balorazioa, akats hori iruzurraren nahiz akatsaren ondoriozkoa denean eta legezkotasunaren ez-betetze aipagarrien ondoriozkoa denean ere. Arriskuari buruzko balorazio horiek egiterakoan, auditoreak barne kontrola hartzen du kontuan –entitateak kontu orokorrak egin ditzan garrantzitsua baita– inguruabarren arabera auditoria prozedura egokiak diseinatze aldera, eta ez entitatearen barne kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko xedez. Auditoria batek barne biltzen du, era berean, aplikatutako kontabilitate-politiken egokitasuna eta arduradunek egindako kontabilitate-estimazioen arrazoizkotasuna, bai eta kontu orokorren aurkezpena ere, oro har.

Gure ustez lortu dugun auditoria-ebidentziak behar adinako oinarria eta oinarri egokia jasotzen du gure fiskalizazio-iritzia emateko.

Finantzen eta legezkotasunaren betetzeari buruzko fiskalizazioaren emaitzatik honako iritzia eratorzen da, **salbuespen batzuk** ere badituena.

IV.1. UDALAREN 2014ko EKITALDIKO KONTU OROKORRA

IRITZIAREN OINARRIA, SALBUESPEN BATEKIN

Udalaren ondasunen inbentarioa 1995ekoa da, eta haren eguneratzea oraindik egin gabe dago; horregatik, ezinezkoa izan da ibilgetu finkatuaren kontabilitate-saldoa arrazoizkoa den egiaztatzea; saldo hori, 2014ko abenduaren 31n, 29,98 milioi eurokoa zen.

IRITZIA

Arestian aipatutako salbuespenaren ondorioei dagokienez izan ezik, Udalaren 2014ko ekitaldiko kontu orokorrak alderdi behinenetan leialki irudikatzen ditu bere gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuen likidazioa, abenduaren 31ko ondare-egoera eta bere eragiketen emaitzak. Halaber, behar bezala interpretatu eta ulertzeko behar den informazio guztia biltzen du, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz betiere.

IV.2. LEGEZKOTASUNAREN BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Gure iritziz, Udalaren 2014ko ekitaldiari buruzko finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa bat datoz, alderdi adierazgarri guztietan, aplikatzekoak diren arauekin.

IV.3. UDALAREN 2014ko EGOERA EKONOMIKO-FINANTZARIOA

Udalaren hasierako aurrekontu bateratuak 11,08 milioiko gastu eta diru-sarrerak dauzka; zenbateko hori ehuneko hirurogeita hiru handitu da aurrekontu-aldaketen bitartez. Horrenbestez, behin betiko aurreikuspenak 18,11 milioikoak dira.

Aldaketak nagusiki dagozkie inbertsio errealak handitzeko egindako diruzaintza-gerakinen gehikuntzei.

Aitortutako betebeharrak 12,4 milioi euro egiten dute, ehuneko 69ko exekuzio-mailarekin. Horren azalpena da, funtsean, inbertsioen zati handi bat ez dela gauzatu; izan ere, kapitulu honetan ehuneko 25eko betetze-mailara iritsi da.

Aitortutako eskubideek 10,75 milioi egiten dute, eta haien betetze-maila ehuneko 59koa izan da. Ehuneko hori azaltzen da, funtsean, finantza-aktiboek daukaten garrantziarengatik (7,1 milioi dira), zeinek, gerakinen-gehikuntzei dagokienez, ez baitute aitortutako eskubiderik. Egitate hori kontuan hartuta, betetzea ehuneko 98koa izanen litzateke.

Haien izaerari erreparatuta, gastu arruntak eta inbertsioak gastu guztien ehuneko 86 eta ehuneko 14 dira, hurrenez hurren. Diru-sarrera arruntak diru-sarrera guztien ehuneko 99 dira; diru-sarrera horien ehuneko 41 jasotako transferentzietatik (ia guztiak transferentzia arruntak) datoz.

Laburbilduz, taula honetan adierazten da zertarako erabili eta nola finantzatu den Udalaren gastuen 100 euroko bakoitza:

Gastuaren izaera	Kopurua	Finantzabidea	Kopurua
Langileak	38	Tributu bidezko diru-sarrerak	58
Bestelako gastu arruntak	48	Transferentziak	41
Inbertsioak	14	Ondare bidezko diru-sarrerak eta beste	1
Guztira	100	Guztira	100

Hona Udalaren 2014rako aurrekontuaren betetzeari buruzko datu ekonomikoak eta 2013koarekiko alderaketa:

	2013	2014	Aldea (%), 2014/2013
Aitortutako betebeharrak, guztira	11.355.310	12.474.725	10
Likidatutako eskubideak, guztira	11.073.146	10.755.287	-3
Gastuen betetzea (%)	73	69	-5
Diru-sarreraren betetzea (%)	71	60	-15
Ordainketak (%)	93	94	1
Kobratutakoa, %	94	92	-2
Gastu arruntak (1. kapitulutik 4.era)	10.836.412	10.762.134	-1
Funtzionamendu-gastuak (1., 2. eta 4. kapituluak)	10.836.412	10.762.134	-1
Inbertsioetan egindako gastuak (6. eta 7. kapituluak)	500.091	1.694.090	339
Finantza eragiketen gastuak (8 eta 9)	18.808	18.500	-2
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	10.766.416	10.681.090	-1
Tributu bidezko diru-sarrerak (1. kapitulutik 3.era)	6.021.695	6.282.450	4
Kapital bidezko diru-sarrerak (6. eta 7. kapituluak)	280.245	13.000	-95
Finantza eragiketen bidezko diru-sarrerak (8. eta 9. kapituluak)	26.485	18.018	-33
Diru-laguntzen menpekotasunak (%)	41	41	0
Tributu bidezko diru-sarrerak / gastu arruntak (%)	56	58	4
Aurrekontuko saldo ez-finantzariora	-289.842	-1.718.957	-593
Aurrekontu-emaizta doituia	486.983	64.503	-87
Aurrezki gordina	-69.996	-37.866	46
Finantza-zama (3.etik 9.era)	0	0	0
Aurrezki garbia	-69.996	-37.866	46
Zorpetze maila (%)	0	0	0
Zorpetze muga (%)	-0,65	-0,37	43
Zorpetze-ahalmena (%)	-0,65	-0,37	43
Diruzaintza-gerakina, guztira	27.516.878	25.739.789	-6
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	2.368.321	2.155.964	-9
Zor bizia	0	0	0

Udalak 2014an ehuneko hamar gehiago gastatu du 2013an baino; hau da, 1.119.415 euro gehiago gastatu ditu. Igoera horren azalpena da, funtsean, inbertsioetan egindako gastuek gora egin dutela, ehuneko 339 handitu baitira.

Agertzera eman behar dugu ezen, 2013ko ekitaldian, Udalak aurreko ekitaldian kobratu eta igorritako zenbait EIOZ itzuli zituela -377.000 euro egiten du itzulketak-; horietatik, 290.000 euro transferentzia arrunten bidezko gastuen kapituluaren erregistratu dira; 87.000 euroko gainerako kopurua zeharkako zergetan izandako diru-sarrera txikiago baten moduan erregistratu dira. Itzulketa horiek kontuan hartu beharrekoak dira Udalaren egoera-orrien 2014/2013 alderaketa egiteko garaian (aurrekontu-emaizta, zorpetze-maila eta zorpetze-muga eta abar).

Diru-sarrerak, berriz, aurreko ekitaldikoan aldean ehuneko sei murriztu dira. Jaitsiera handiena izan duen kapituluak kapital-transferentzia izan da, zeren eta 2014an ez baitu exekuziorik izan; 2013an, berriz, 280.000 euroko exekuzioa izan zuen; beherakada horren arrazoia izan da 2014an ez dela Nafarroako Gobernuaren diru-laguntzarik izan. Halaber, jaitsiera handia izan da ondare bidezko diru-sarreraren kapituluaren, zeren eta 2013an 473.000 eurokoa izatetik 2014an 43.000 eurokoa izatera iragan baita, banku-entitateek epe finkoko ezarpenetarako eskaintzen dituzten interes-tasek behera egitearen ondorioz. Beherakada horiek kontrastea egiten dute zuzeneko zergen kapituluaren izandako igoerarekin; izan ere, 2013an 3,6 milioi eurokoa izatetik 2014an 3,8 milioi eurokoa izatera iragan baita, batez ere zergen diru-bilketan izandako igoeraren ondorioz, plusbalioak eta hiri-kontribuzioa direla eta.

Gastu arruntetan, berriz, ehuneko bateko beherapena izan da; diru-sarrera arruntek, aldiz, ehuneko bat egin dute behera.. Gastu arrunten beherakadaren arrazoia transferentzia arrunten kapituluak da. Diru-sarrerari dagokienez, haien jaitsieraren justifikazioa diru-sarrera arrunten kapitulu guztietan izandako beherakadatik heldu da, salbu eta zuzeneko zergen kasuan, zeren eta horietan diru-bilketak ehuneko zazpi egin baitu gora; tasek eta bestelako diru-sarrerak eta transferentzia arruntek ehuneko bi eta hiru egin dute gora, hurrenez hurren.

Aurrekontu saldo ez-finantzariora 1.718.957 euro negatiboa da; aurreko urtean ere negatiboa izan zen, 290.000 euro negatiboa hain zuzen.

Aurrekontu-emaitza doituak, ekitaldiaren amaieran, 64.503 euroko superabita erakusten du, zeina heldu baita ekitaldiko gastuen finantzaketatik; finantzaketa hori 1,8 milioi eurokoa izan da, eta diruzaintza-gerakinaren bidez gauzatu da. 2013an, emaitza 0,5 milioi euroko superabita izan zen.

2013an eta 2014an hirigintza-jarduketetatik heldutako diru-sarrerarik izan ez denez, funtzionamendu gastuak handiagoak dira diru-sarrera arruntak baino (70.000 euro 2013an eta 38.000 euro 2014an). Hala eta guztiz ere, aurreko urteetan lortutako diru-sarrek aukera ematen dute baliabide atxikiengatiko diruzaintza gerakina 23,4 milioikoa izateko eta libreki erabiltzekoa den 2,1 milioi euroko gerakina edukitzeko. Udalak ez du epe luzeko zorrik.

Balantze bateratuko eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak, 2014ko abenduaren 31n, 25,7 milioikoak dira.

Zizur Nagusiko Udalak 2006-2014 aldian honako bilakaera izan du diru-sarreretan eta gastuetan:

Diru-sarrerak (aitortutako eskubide garbiak)

Kapitulua	Izena	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014
1	Zuzeneko zergak	2.743.759	2.316.514	2.671.586	2.637.639	3.010.842	3.120.865	3.128.282	3.601.424	3.842.511
2	Zeharkako zergak	54.357	4.699.970	167.149	36.388	286.946	2.624.633	131.747	51.946	24.291
3	Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	3.012.410	2.683.937	2.688.870	2.677.558	2.607.964	2.352.152	2.427.213	2.368.325	2.415.648
4	Transferentzia arruntak	3.930.759	4.110.296	4.610.758	4.575.991	4.932.147	4.310.629	4.434.786	4.271.858	4.398.640
5	Ondare bidezko eta herri-lurren aprobe-txamenduko diru-sarrerak	895.818	1.204.503	1.895.093	703.802	349.825	492.153	706.481	472.863	43.178
6	Inbertsio errealak besterentzea	22.060.247	94.996	0	9.359	0	0	0	0	13.000
7	Entitateari egindako transferentziak	20.555.235	9.565.916	4.807.736	2.928.347	1.881.198	390.217	949.947	280.245	0
8	Finantza-aktiboak	5.075	13.660	20.839	16.381	20.907	10.409	17.623	26.485	18.019
9	Finantza-pasiboak	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Guztira		53.257.660	24.689.792	16.862.031	13.585.469	13.089.829	13.301.058	11.796.079	11.073.146	10.755.287

Gastuak (aitortutako betebeharrak)

Kapitulua	Izena	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014
1	Langile-gastuak	4.087.381	4.090.435	4.509.275	4.732.743	4.818.854	4.610.140	4.441.090	4.633.902	4.737.138
2	Gastu arruntak ondasun eta zerbitzu-erakundeentzat	4.630.397	4.776.473	4.892.675	5.098.744	5.512.062	5.584.683	5.970.938	5.602.156	5.612.922
3	Gastu finantzarioak	1.788	1.976	612	13	0	0	0	0	0
4	Transferentzia arruntak	436.046	442.918	609.071	920.690	466.269	442.686	655.038	600.354	412.074
6	Inbertsio errealak	15.205.602	21.297.175	5.047.587	3.095.225	9.119.836	617.314	519.201	500.091	1.694.091
7	Kapital-transferentziak	0	0	0	0	0	0	0	0	0
8	Finantza-aktiboak	10.200	21.400	20.995	24.800	7.400	10.000	31.649	18.808	18.500
9	Finantza-pasiboak	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Guztira		24.371.414	30.630.377	15.080.215	13.872.215	19.924.421	11.264.823	11.617.916	11.355.311	12.474.725

Taulako datuetatik ondorioztatzen denez, 2006tik 2010era bitartekoa inbertsio ugariko aldia izan da, eta kapital-transferentzien bidezko diru-sarrera handiak izan dira; 2006an, inbertsioen besterentzeetatik heldu ziren diru-sarrera horiek.

2011. urtetik aurrera inbertsioek zorrotz murriztu ziren, eta aurrekontuen bolumena ere bai. 2014an, aldiz, inbertsioek gora egin dute, eta gorakada hori diruzaintza-gerakinarekin finantzatu da.

Ikusi da 2010etik aurrera gastu arruntei eutsi zaiela eta ia oreka bat lortu dela aurrezki gordinean eta aurrezki garbian, zeren eta zorpetzerik ez baitago.

Diruzaintza-gerakinak aukera ematen du inbertsioak egiteko eta aurrekontu-desfasea orekatzeko.

Udalak aurrera eraman duen jardueraren bilakaera honako adierazle hauen alderaketatik ondorioztatzen da 2011tik 2014ra.

Adierazlea	2011	2014	Aldea (%), 2014/2011
Zorpetze ahalmena	% 17,54	% -0,37	-
Diruzaintza-gerakina	28,2 milioi	25,7 milioi	-9
Gastu arrunta biztanleko	767 €	755 €	-2
Tributu diru-sarrerak biztanleko	(*) 444 €	440 €	-1

(*) Datu hau 2010ekoa da, zeren eta 2011n alderaketa nahasten duten aparteko eragiketak izan baitziren.

Datu hauetatik ondorioztatzen denez, Udalak bere gastu arruntei eta biztanle bakoitzeko diru-sarrerei etsi die; diruzaintza-gerakin nabarmena dauka eta ez du zorrik, nahiz eta zorpetze-ahalmenaren zati handi bat galdu duen. Horrek esan nahi du funtzionamendu-gastuek diru-sarrera arruntak gainditu dituztela, nahiz eta alde hori doitzen doan eta 2014an ia orekatzera iritsi den.

Horregatik, bada, eta epe ertainean Udalaren bideragarritasun ekonomikoa bermatzeko helburuarekin, ezinbestekoa da Udalak, dagokion planaren bitartez, hainbat neurri hartzen jarraitzea, bere gastu arruntei eusteko eta baliabide arruntak sortzeko ahalmena indartzeko aukera emanen diotenak.

IV.4. AURREKONTU-EGONKORTASUNEN ETA FINANTZA-IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK BETETZEA.

Aurrekontu-egonkortasunaren printzipioa noraino bete den aztertu da, Nafarroako Gobernuak 2014ko maiatzean eta urrian horretarako eman dituen gidez baliatuta. Hurrengo taulan ematen dugu horren emaitza:

Kontzeptua	Kopurua
Aurrekontuko saldo ez-finantzarioa	-1.718.957
Doikuntzak	-31.149
Finantzaketa-beharrak	-1.750.106

Zizur Nagusiko Udalak ez du betetzen aurrekontu-egonkortasunaren baldintza, ez eta gastuaren araua ere, zeren eta egoztekoa den gastua handiagoa baita ezarritako muga baino (2013koa gehi ehuneko 1,5); alabaina, finantza-iraunkortasunaren printzipioa betetzen du, zeren eta Udalak ez baitu zorrik.

Ez-betetze hori dela eta, Udalaren Osoko Bilkurak, 2/2012 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera, behar diren plan ekonomiko-finantzarioak onetsi ditu, finantza-egonkortasuna betetzeko modua ematen diotenak.

Udalak betetzen ditu legedia indardunean hornitzaileei ordainketak egiteko ezarritako epeak.

IV.5. AURREKO TXOSTENETAN KONTUEN GANBERAK EMANDAKO GOMENDIOEN BETETZE-MAILA.

Ganbera honen 2013ko ekitaldiko txostenari dagokionez, aholku garrantzitsuenak oraindik gauzatzeko daude, txosten honen VI. atalean berresten den bezala, Honakoak dira, hain zuzen:

- *Udalaren aurrekontuak indarrean dagoen legeriak agintzen duen epean egin eta onartzea.*
- *Kultura eta kirol patronatuak, zeinek langilerik ez baitute, Udalaren zerbitzu bihurtzeko aukera aztertzea.*
- *Kontratuaren balioa alde aurretik zenbatets daitekeen kasuetan, behar diren kontratazio-espedituek izapidetzea.*
- *Diru-laguntzei buruzko plan estrategiko bat egitea.*
- *Diru-laguntzak emateko prozedura arautzen duen ordenantza orokor bat onartzeko egonkortasuna aztertzea.*
- *Hirigintzako laguntza teknikoko lanetarako behar den hautapen-prozedura egitea.*

V. UDALAREN 2014ko KONTU OROKORRAREN LABURPENA

Ondoren, 2014ko kontu orokorraren kontabilitateko egoera-orri bateratu garrantzitsuenak azaltzen ditugu:

V.1. 2014ko AURREKONTU BATERATUAREN BETETZEAREN EGOERA-ORRIA**Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera**

Kontzeptua	Hasierako kredituak	Aldaketak Gehik./Murrizk.	Behin betiko kredituak	Aitortutako betebeharrak	Betetakoa (%)	Kitatutako ordainketak	Egiteko dauden ordainketak
1. Langile-gastuak	4.947.167	25.715	4.972.882	4.737.138	95,26	4.618.219	118.918
2. d) Gastuak: ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea.	5.684.719	229.611	5.914.330	5.612.922	94,90	5.190.101	422.820
3. Finantza-gastuak	0	0	0	0	0,00	0	0
4. Transferentzia arruntak	349.146	74.677	423.823	412.075	97,23	304.113	107.962
5. Inbertsio errealak	47.111	6.701.757	6.748.868	1.694.091	25,10	1.611.257	82.834
6. Kapital-transferentziak	0	0	0	0	0,00	0	0
7. Finantza-aktiboak	54.000	0	54.000	18.500	34,26	18.500	0
8. Finantza-pasiboak	0	0	0	0	0,00	0	0
Gastuak, guztira	11.082.143	7.031.760	18.113.903	12.474.726	68,87	11.742.190	732.534

Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoen arabera

Kontzeptua	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak Gehik./Murri:	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubideak	Betetakoa (%)	Diru-bilketa likidoa	Kobratzeko dagoena
1. Zuzeneko zergak	3.559.050	0	3.559.050	3.842.511	107,96	3.240.202	602.310
2. Zeharkako zergak	200.000	0	200.000	24.291	12,15	29.125	599
3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak	2.453.692	0	2.453.692	2.415.648	98,45	2.361.114	54.534
4. Transferentzia arruntak	4.355.346	21.900	4.377.246	4.398.640	100,49	4.138.691	259.949
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	418.055	0	418.055	43.178	10,33	43.091	87
6. Inbertsio errealak besterentzea	0	0	0	13.000	0,00	13.000	0
7. Kapital-transferentziak	42.000	0	42.000	0	0,00	0	0
8. Finantza-aktiboak	54.000	7.009.861	7.103.323	18.019	0,26	18.019	0
9. Finantza-pasiboak	0	0	0	0	0,00	0	0
Diru-sarrerak, guztira	11.082.143	7.031.761	18.113.906	10.755.287	59,38	9.843.242	917.479

V.2. 2014ko AURREKONTU BATERATUAREN EMAITZA

Kontzeptua	2013	2014
+ Aitortutako eskubide garbiak	11.073.146	10.755.287
- Aitortutako betebeharrak garbiak	11.355.310	12.474.725
Aurrekontu-emaiza	-282.164	-1.719.438
Doikuntzak		
- Finantzaketaren desbideratze positiboak	-260.000	-64.244
+ Finantzaketaren desbideratze negatiboak	0	0
+ Diruzaintza-gerakinarekin finantzatutako gastuak	1.029.148	1.848.185
Aurrekontu-emaiza doituia	486.983	64.503

V.3. DIRUZAINZTA-GERAKIN BATERATUAREN EGOERA-ORRIA 2014ko ABENDUAREN 31n

(Eurotan)			
Kontzeptua	2013	2014	Aldearen ehunekoa
(+) Kobratzeko dauden eskubideak	772.804	1.025.285	32,67
(+) Diru-sarrerak: Aurtengo ekitaldia	683.180	917.478	
(+) Diru-sarrerak: Itxitako ekitaldiak	652.870	719.754	
(+) Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	43.762	28.389	
(+) Ordainketen itzulketak	0	0	
(-) Bilketa zaileko eskubideak	-582.970	-631.748	
(-) Aplikatzeko dauden diru-sarrerak	-24.038	-8.588	
(-) Ordaintzeko dauden betebeharrak	1.050.592	968.962	-7,77
(+) Gastuena: Aurtengo ekitaldia	786.016	732.534	
(+) Gastuak: Itxitako ekitaldiak	520	0	
(+) Diru-sarreren sortzapena	93	5.433	
(-) Aplikatzeko dauden gastuak	0	0	
(+) Aurrekontuz kanpoko gastuak	263.963	230.995	
(+) Diruzaintzako funts likidoak	27.794.665	25.683.467	-7,60
(+) Finantzaketaren desbideratze metatu negatiboak	0	0	0,00
= Diruzaintza-gerakina, guztira	27.516.878	25.739.789	-6,46
Diruzaintza-gerakina, finantzaketa atxikia duten gastuak direla-eta	44.150	97.693	0,00
Baliabide atxikien diruzaintza-gerakina	25.104.406	23.486.132	-1,30
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	2.368.321	2.155.964	-7,62

V.4. 2014ko ABENDUAREN 31ko EGOERA-BALANTZE BATERATUA

Aktiboa

Deskribapena	2014	2013
A Ibilgetua	29.985.354	28.430.058
1. Ibilgetu materiala	29.432.980	27.899.625
2. Ibilgetu ez-materiala	471.650	464.965
3. Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	78.743	63.487
4. Herri-ondasunak	0	0
5. Finantza-ibilgetua	1.981	1.981
B Zenbait ekitalditan banatu beharreko gastuak	0	0
6. Kitatu beharreko gastuak	0	0
C Zirkulatuzailea	27.478.424	29.501.895
7. Izakinak	0	0
8. Zordunak	1.665.621	1.379.813
9. Finantza-kontuak	25.703.813	27.812.730
10. FINANTZA EGOERA IRAGANKORRAK, ALDIZKATZEAREN ON-DORIOZKO DOITZEAK Finantzaketaren egoera iragankorrak, aldizkatzeak eragindako doitzeak	0	0
11. Aplikatzeko dagoen emaitza (ekitaldiko galera)	108.990	309.353
Aktiboa, guztira	57.463.779	57.931.953

Pasiboa

Deskribapena	2014	2013
A Funts berekiak	56.486.228	56.857.323
1 Ondarea eta erreserbak	38.012.020	38.383.114
2 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (etekina)	0	0
3 Kapitaleko diru-laguntzak	18.474.208	18.474.208
B Arrisku eta gastuetarako hornidurak	0	0
4 Hornidurak	0	0
C Epe luzeko hartzekodunak	0	0
4 Jesapenak, maileguak eta jasotako fidantzak eta gordailuak	0	0
D Epe laburreko hartzekodunak	977.551	1.074.630
5 Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuz kanpokoak	968.962	1.050.592
6 Aplikatzeko dauden kontusailak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	8.588	24.038
Pasiboa, guztira	57.463.778	57.931.952

V.5. GALEREN ETA IRABAZIEN KONTU BATERATUA 2014an

Ekitaldiko emaitza arruntak

Zor			Hartzeko		
Deskribapena	2014	2013	Deskribapena	2014	2013
3 Hasierako izakinak	0	0	3 Hasierako izakinak	0	0
39 Izakinen balio-galtzeen hornidura	0	0	39 Izakinen balio-galtzeen hornidura	0	0
60 Erosketak	0	0	70 Salmentak	1.956.265	1.935.155
61 Langile-gastuak	4.856.272	4.750.617	71 Ondasunaren eta enpresaren errenta	475.412	797.890
62 Finantza-gastuak	0	0	72 Produkzioari eta inportazioari lotutako tributuak	2.391.459	2.317.926
63 Tributuak	0	0	73 Errentaren eta ondarearen gaineko zerga arruntak	685.418	671.608
64 Lanak, hornidurak eta kanpo zerbitzuak	5.493.787	5.485.441			
65 Gizarte prestazioak	0	0	75 Ustiapenerako diru-laguntzak	0	0
66 Ustiapenerako diru-laguntzak	0	0	76 Transferentzia arruntak	4.398.640	4.271.858
67 Transferentzia arruntak	412.075	600.353	77 Kapitalaren gaineko zergak	789.925	663.837
68 Kapital-transferentziak	0	0	78 Bestelako diru-sarrerak	27.149	108.142
69 Amortizazio eta horniduretarako zuzkidurak	0	0	79 Beren helbururako aplikatutako hornikuntzak	0	0
800 Ekitaldiko emaitza arruntak (saldo hartzekoduna)	0	0	Ekitaldiko emaitza arruntak (saldo zorduna)	37.866	69.996
Guztira	10.782.134	10.836.412	Guztira	10.762.134	10.836.412

Ekitaldiko emaitzak

Zor			Hartzeko		
Deskribapena	2014	2013	Deskribapena	2014	2013
80 Ekitaldiko emaitza arruntak (saldo zorduna)	37.866	69.996	80 Ekitaldiko emaitza arruntak (saldo hartzekoduna)	0	0
82 Aparteko emaitzak (saldo zorduna)	40.241	0	82 Ekitaldiko aparteko emaitzak (saldo hartzekoduna)	0	76
83 Balore-zorroaren emaitzak (saldo zorduna)	0	0	83 Balore-zorroaren emaitzak (saldo hartzekoduna)	0	0
84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa	30.883	239.433	84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa	0	0
89 Etekin garbia, guztira (saldo hartzekoduna)	0	0	89 Galera garbia, guztira (saldo zorduna)	108.990	309.353
Guztira	108.990	309.429	Guztira	108.990	309.429

VI. UDALARI ETA HAREN MENPEKO ENTEEI BURUZKO IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Ondotik, kudeaketaren arlo aipagarrien arabera sailkaturik, Ganberaren iritziz Udalak bere antolamendu-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne-kontrola hobetzeko hartu beharko lituzkeen neurriei buruzko iruzkin eta gomendio nagusiak emanen ditugu.

VI.1. ALDERDI OROKORRAK

2014ko ekitaldirako aurrekontuari 2014ko urtarrilaren 30eko osoko bilkuran eman zion Udalak behin-behineko onespena, eta 2014ko martxoaren 7an hartu zuen indarra, behin betiko onespena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zenean.

Kirol eta Kultur patronatuek Udaleko langileen eta instalazioen bitartez ematen dituzte beren zerbitzuak; Musikako Patronatuak bertako langileak ditu, eta udal instalazioetan egiten ditu bere jarduerak.

Udalaren ondasunen inbentarioa 1995ekoa da, eta gaurkotzeko dago.

Zizur Nagusiko Udalaren aurka 2014ko ekitaldian aurkeztutako errekurtsoen azterketa eginik, ondorioztatzen da Udalak ez dituela izanen, aldez aurretik esanda, nabarmentzeko moduko zenbatekoen erantzukizun ekonomikorik.

Hona gure gomendioak:

- *Kultura eta kirol patronatuak, zeinek langilerik ez baitute, Udalaren zerbitzu bihurtzeko aukera aztertzea.*
- *Udal inbentarioa eguneratu eta onestea, eta altak eta bajak kontrolatzeko eta jarraitzeko sistema bat ezartzea, zeinak erraztuko baitu hura etengabe eguneratuta eta kontabilitatean ibilgetuarekin lotuta egotea.*

VI.2. LANGILEAK

Langileen atalaren gastuak 4,7 milioi euro egiten du; hau da, 2014an sortutako gastu guztien ehuneko 38 eta gastu arrunten ehuneko 44.

2013ko ekitaldiari dagokionez, kapitulu hau ehuneko bi handitu da, honako xehetasunen arabera:

	2013	2014	Aldea (%)
Goi-karguak	41.413	41.414	0,00
Funtzionarioak	2.552.570	2.561.455	3,5
Lan-kontratudun langileak	840.794	886.144	5,39
Kuotak, prestazioak eta gizarte gastuak	1.199.125	1.248.125	4,09
Guztira	4.633.902	4.737.138	2,23

Udalaren Osoko Bilkurak 2014ko plantilla organikoa 2014ko martxoaren 3an onetsi zuen behin betiko. Guztira 96 lanpostu dauzka eta horietatik 20 lanpostu daude hutsik 2014ko abenduaren 31n. Bestalde, Musika Eskolako Patronatuaren Batzordeak 2014ko plantilla organikoa 2014ko otsailaren 20an onetsi zuen behin betiko. Plantilla horrek 15 lanpostu dauzka, eta 2014ko abenduaren 31n horietatik bi lanpostu daude hutsik.

Bi plantilla horiek lanpostuen arabera banatzen dira, honako taulei jarraituz:

Langileak	Lanpostuak	Aktiboa	Lanpostu hutsak	Betetako lanpostu hutsak
A. Udala	96	76	20	19
Funtzionarioak	86	70	16	15
Lan-kontratudun finkoak	9	5	4	4
Izendapen askea	1	1	-	-
B. Musika Eskolaren Patronatua	15	13	2	1
Funtzionarioak	0	0	0	0
Lan-kontratuko finkoak	15	13	2	1
Guztira	111	89	22	20

2014ko abenduaren 31n, Udalean eta haren erakunde autonomoetan 119 pertsonak egiten zuten lan:

Langileak	Udala	Musika eskolaren patronatua	Guztira
Udalbatzako kideak	1	0	1
Behin-behineko langileak - izendapen askekoak	1	0	1
Funtzionarioak	70	0	70
Lan-kontratudun finkoak	5	13	18
Administrazio-araubidean kontratatuak	1	0	1
Behin-behineko lan-kontratudunak	27	1	28
Aldi baterako lan-kontratudunak	-	0	0
Guztira	105	14	119

2013ko ekitaldiarekin alderatuta, sei langile gutxiago ditu Udalak.

Udalaren aipatutako langileak honako arloei daude atxikiak:

Arloak	Kopurua
Alkatea	1
Idazkaritza	6
Zerbitzu ekonomikoak	6
Kultura	6
Kirola	5
Gizarte zerbitzuak	20
Hirigintza zerbitzuak	11
Lorezaintza zerbitzua	13
Segurtasuna eta babesa	24
Ikastetxea	6
Berdintasuna	3
Giza baliabideak	4
Udala, guztira	105

Segurtasunak eta gizarte zerbitzuek udal langileen ehuneko 44 egiten dute.

Langile-gastuen lagin bat aztertuta, langile-gastuak behar bezala kontabilizatuta daudela, ordainsariak betetako lanposturako erabakitakoak direla eta egindako atxikienak zuzenak direla ondorioztatzen da, oro har.

Nabarmendu beharra dago txosten hau idazteko egunean oraindik ere ebazteko dagoela Udalak Administrazioarekiko Auzien Auzitegian aurkeztutako errekurtsua, zeren eta Nafarroako Administrazio Auzitegiak baliogabetzat jo baitzituen deialdi batzuk, polizia-funtzionarioen bost lanposturi eta lorategietako langileren lau lanposturi dagozkionak, hain zuzen ere Udalak ez zuelako ordezkari sindikalekin kontsultatu 2012rako lan eskaintza publikoa (tartean bi deialdi horiek zeuden), hura osoko bilkuran onetsi eta NAO-n argitaratu aurretik. Lanpostua lortu zuten izangaiek haien jabetza hartu zuten 2013an zehar.

VI.3. ONDASUN ARRUNTETAKO ETA ZERBITZUETAKO GASTUAK

Ondasun arruntetan eta zerbitzuetan egindako gastuek 5,6 milioi euro egin dute; guztira, ekitaldiko gastuen ehuneko 44,98 eta eragiketa arrunten gastuen ehuneko 52,14 egiten dute. Horiek horrela, ehuneko 0,1 igo da 2013 ekitaldiarekiko.

Kontratazio-espeditente hauek berrikusi dira (zenbatekoak BEZik gabe)

Deskribapena	Kontratu-mota	Esleipen prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa	Eskaintzak	Esleipenaren zenbatekoa
Gazteentzako lokala - Gaztetxea	Bertaratzea	Irekia, Europar publizitatea eginda	117.300	2	116.117
Ludotekaren kudeaketa	Bertaratzea	Irekia, Europar publizitatea eginda	45.450	2	41.435

Egindako azterketatik eta kapitulu honetan erregistratutako gastuen lagin batetik ondorioztatzen da Udalak modu arrazoizkoan betetzen duela kontratazioaren arloan indarra duen araudia.

VI.4. TRANSFERENTZIEN ONDORIOZKO GASTUAK

Horrelako gastuek 412.074 euro egin dute, eta 2014an sortutako gastu guztien ehuneko 3,3 dira. Ez dago kapital-transferentziengatik gasturik, ez ekitaldi honetan, ez 2013koan.

Honakoa da gastu horiek 2013ko ekitaldian eta 2014ko ekitaldian alderatzeko taula, artikuluz artikuluko:

	Aitortutako betebeharrak		Aldearen ehuneko
	2013	2014	2014/2013
Toki entitateei	8.085	6.965	-14
Familiei	77.176	90.149	17
Irabazi-asmorik gabeko erakundeei	225.171	314.960	40
Enpresa pribatuei	289.922	0	0
Transferentzia arruntak	600.354	412.075	-31

2013. urtearekin alderatuta, gastu horiek ehuneko hogeita hamaika jaitzi dira, zeren eta 2013an, azkenean egin ez zen obra batengatik 2011ko ekitaldian kobratutako 289.922 euroko EIOZa itzuli baitzen.

Honakoak dira 2014an emandako diru-laguntza garrantzitsuenak:

Kontzeptua	Kopurua
Futbol klubarentzako diru-laguntza	71.750
Familietan esku hartzeko programa	84.972
Saskibaloia fundazioarentzako diru-laguntza	31.523
Zizur Nagusiko banda	18.000
Garapenerako laguntza ekonomikoa	10.000
Guztira	216.245

Udalak diru-laguntzak berariazko ordenantzen bitartez arautzen ditu, nahiz eta ez daukan diru-laguntzei buruzko ez ordenantza orokorrik ez plan estrategikorik.

Egindako azterketatik ondorioztatzen da ezen, orokorrean, Udalak berariazko ordenantzen arabera ematen dituela diru-laguntzak.

Hona gure gomendioak:

- *Diru-laguntzei buruzko plan estrategiko bat egitea.*
- *Diru-laguntzak emateko prozedura arautzen duen ordenantza orokor bat onartzeko egonkortasuna aztertzea.*

VI.5. INBERTSIOAK

2014. urterako behin betiko aurrekontuan aurreikusitako inbertsioen (6,7 milioi) ehuneko 25 baizik ez da bete, eta 1,69 milioira iritsi da; hain zuzen ere, ekitaldiko betebeharrak guztien ehuneko 13,5. Egin ez diren inbertsioen artean, aipagarriena kirol instalazio berriena da, 2,5 milioi euroko aurreikuspenarekin.

Nabarmentzekoak dira oinarrizko gizarte zerbitzuko lokal berrietarako obrak, bai eta argiteria publikoaren erreforma eta kirolaren egindako inbertsioak ere. Ardoi sektoreko erabilera anitzeko pistaren estaldura, 670.000 euroko kredituarekin, exekuzio txikia izan du, zeren eta kontratazioa eta obrak 2015ean egin baitira.

2013rekin alderatuta, inbertsioek ehuneko 338 egin dute gora.

Honakoak izan dira kapitulu honetan egotzitako gastu nagusiak:

Inbertsioa	Kopurua
Oinarrizko gizarte zerbitzuetarako lokal berriak	665.212
Argiteria publikoa erreformatzea	208.193
Kirol arloko inbertsioak	440.677

Kontratazio-espeditante hauek berrikusi dira (zenbatekoak BEZik gabe)

Deskribapena	Kontratu-mota	Esleipen prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa	Eskaintzak	Esleipenaren zenbatekoa
K-1 unitatean oinarrizko gizarte zerbitzuetarako lokalak egokitzea	Obra	Irekia	656.209	15	459.923
3 padel pista egitea	Obra	Negoziatua	60.000	1	57.464
Hiri argiteriaren birmoldatzea	Obra	Irekia	195.524	11	181.586

Aurreko azterketatik eta kapitulu honetan exekutututako gastuen lagin batetik ondorioztatzen da Udalak modu arrazoizkoan betetzen duela kontratazioaren arloan indarra duen araudia.

VI.6. AURREKONTUKO DIRU-SARRERAK

2014ko ekitaldian aitortutako eskubideak 10,7 milioioak izan dira; ehuneko 99,71 eragiketa arruntengatiko diru-sarrereri dagozkie.

Eragiketa arruntaren artean zuzeneko zergen bidezko diru-sarrerak (3,8 milioi euro) eta transferentzia arruntak (4,4 milioi euro) nabarmentzen dira.

Diru-sarreraren aurrekontuaren betetze maila ehuneko 59koa izan da, diruzaintza-gerakinen gainerakuntza kontuan hartzen ez badugu. Zuzeneko zergek, tasek eta transferentzia arruntek ehuneko ehuneko edo goragoko betetzeak daukate; zeharkako zergek eta ondare bidezkoak, ordea, ehuneko 10 eta 12 bitarteko betetze-maila izan dute.

2013. urtearen aldean, aitortutako betebeharrak ehuneko 2,8 murriztu dira. Hona zehatz-mehatz:

Aitortutako eskubide garbiak		2013	2014	Aldea (%), 2014/2013
I	Zuzeneko zergak	3.601.424	3.842.511	6,6
II	Zeharkako zergak	51.946	24.291	-53,2
III	Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrerak batzuk	2.368.325	2.415.648	1,9
IV	Transferentzia arruntak	4.271.858	4.398.640	2,9
V	Ondare bidezko sarrerak eta herri ondasunen aprobetxamenduak	472.863	43.178	-90,9
	Diru-sarrera arruntak	10.766.416	10.724.268	-0,3
VI	Inbertsio errealeen besterentzea	0	13.000	+100
VII	Kapital transferentziak eta bestelako kapital diru-sarrerak	280.245	0	-100
VIII	Finantza-aktiboak	26.485	18.019	-30
IX	Finantza-pasiboak	0	0	0
	Kapitaleko diru-sarrerak	306.730	31.019	-90
	Guztira	11.073.146	10.755.287	-2,8

2014ko ekitaldian, ez da kapital-transferentzien bidezko diru-sarrerarik izan. Nabarmenezkoa da zuzeneko zergen arloko diru-bilketa, batez ere lurren balio gehikuntzarengatik zergari eta, neurri txikiagoan, hiri-kontribuzioari dagokienez.

Hurrengo taulan udal zerga bakoitzeko aitortu diren eskubideen bilakaera erakusten dugu:

Zergak	Aitortutako eskubideak		Aldea (%) 2014/2013
	2013	2014	
Lurraren kontribuzioa	2.013.993	2.151.934	7
Ibilgailuak	671.608	685.418	2
Lurren balio-gehikuntza	663.837	789.925	19
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	251.987	215.235	-15
EIOZa	51.946	24.291	-53
Guztira	3.653.370	3.866.802	6

Balorazio-ponentziaren azken eguneratzea 2013. urtean egin zen. 2010eko ekitaldian Udalaren Osoko Bilkurak eguneratze lanei ekitea onetsi zuen, 2013ko ekitaldiaren hasieratik aurrera koefiziente berriak aplikatzeko asmotan; Nafarroako Gobernuak Sustapen Departamentuak egin behar zituen aldaketan ondorioz, ordea, balorazio-ponentzia ezin izan da 2013ko ekitaldira arte onetsi osoko bilkuran. Horregatik, Udala 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera hasi da aplikatzen onetsitako koefiziente berriak.

Udalak aplikatutako tasak hurrengo taulan ikus daitezke:

Tributua	Udala	2/95 Foru Legea
Hiri-lurraren kontribuzioa	0,232	0,10 - 0,50
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	1,4	1 - 1,4
Lurren balio-gehikuntza		
Gaurkotzearen koefizientea	2,86tik 3,16ra	2,1 - 3,6 bitartean
Zerga-tasa	18,22	8 - 20 bitartean
Eraikuntza, instalazioak eta obrak	5	2 - 5

VI.7. HIRIGINTZA

Zizur Nagusiko Udalak bere baliabideen bitartez egiten ditu hirigintzako lanak, Hirigintza Alorra ize-neko organo baten bitartez; organo horretan diharduten pertsonak hauek dira: hiru ofizial eta aparejadore bat.

Horrez gainera Udalak kanpoko hirigintza-aholkularitza bat badauka, arkitekto talde batek egiten duena. 2014an, 16.770 euroko gastua ekarri du aholkularitza horrek.

Zizur Nagusiko Udalaren plana 2004an onetsi zen, eta alderdi garrantzitsuenetan, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legean ezarritakoari egokitzen zaio.

2014an, Udalak ez du obra lizentziarik eman etxebizitzak eraikitzeko.

Udalaren lurzoru-ondarea erakundearen gainerako ondasunetatik bereizita kudeatzen eta erregistra-tzen da. Honako hau da haren osaera 2014ko abenduaren 31n:

Kontzeptua	Kopurua
Ondasunak	4.687.606
Diru-sarrerak	23.158.549
Guztira	27.846.155

Udalak badauka hirigintza-hitzarmenen erregistro gaurkotua. Haren irakurketatik eratoritzen da 2014ko ekitaldian ez dela hirigintza-hitzarmen berririk egin, eta ez dela, ezta ere, hirigintza-jarduketa garrantzitsurik egin.

VI.8. ERAKUNDE AUTONOMOAK

VI.8.1. Kultur Patronatua

Kultura Patronatua sortu zen Zizur Nagusiko biztanleen partaidetzarako ildo eta gizarte- eta kultura-erreferentziarako gune gisa, eta gisa honetako jarduerak garatu izan ditu: ikastaroak, gizarte- eta hezkuntza-izaerako hitzaldiak, antzerki- eta dantza-ekitaldiak, entzunaldi eta kontzertuak, proiektzioak, erakusketak, liburutegia.

Kultura Patronatuak ez du langile berekirik, haren langileak Udaleko langileen multzoan sartuta baitaude. 2014ko abenduaren 31n, Udaleko 5 funtzionariok eta bitarteko lan-kontratudun bost pertsonak egiten zuten lan Patronatuan.

2014an, 0,39 milioiko gastuak (funtsean ondasun arruntenak eta zerbitzuenak) eta 0,43 milioiko diru-sarrerak dauzka. Hona haien xehakatzea:

Kontzeptua	Kopurua
Kuotak eta sarrerak	108.765
Udalaren diru-laguntza	251.541
Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza	50.245
Enpresa pribatuen diru-laguntza	20.000

Patronatuak diru-sarrera berekiekin gastuen ehuneko 28 ordaindu ditu; 2013an, berriz, ehuneko 23 ordaindu zituen.

Haren jarduera nagusiak hirugarrenei esleitzen zaizkie kasuko kontratuaren bitartez. Kontratu horiek prozedura negoziatuaren bidez izapidetzen dira.

VI.8.2. Kirol Patronatua

Kirol Patronatua zenbait ataletan dago banaturik. Atal horiek kudeatzen eta garatzen dituzte Zizur Nagusiko biztanleei eskaintzen zaizkien kirol jarduerak. Ez du langile berekirik, langileak Udaleko langileen multzoan sartzen baitira. 2014ko abenduaren 31n sei funtzionarioek egiten zuten lan Patronatuan.

2014an, 0,54 milioiko gastuak (funtsean ondasun arruntenak eta zerbitzuenak) eta, halaber, 0,54 milioiko diru-sarrerak dauzka. Hona diru-sarreraren xehakatzeara:

Kontzeptua	Kopurua
Kuotak eta sarrerak	327.519
Udalaren diru-laguntza	183.772
Beste diru-laguntza batzuk	26.800

Patronatuak diru-sarrera berekiekin gastuen ehuneko 60 ordaindu ditu, eta 2013ko ekitaldian, berriz, ehuneko 59 ordaindu zituen.

Haren oinarriko kirol jarduerak hirugarrenekin kontratatzen dira prozedura irekien bitartez. Kontratu hauek urtebetekoak izaten dira, eta gehienez ere hiru edo lau urterako luzatzeko modukoak.

2014ko ekitaldian, zenbait kontratazio-prozedura eraman dira aurrera indarrean zeuden kontratuak amaitzeko. Aztertutako espedienteak honako hau izan da (BEZik gabeko zenbeteoak):

Deskribapena	Kontratu-mota	Esleipen prozedura	Lizitazioaren zenbeteoak	Eskaintzak	Esleipenaren zenbeteoak
Kirol-jardueretarako laguntza-1. lotea	Bertaratzea	Irekia, Europar Batasunean publikitaterik egin gabea	80.000	3	58.338

Aurreko azterketatik, aurreko ekitaldietan esleitutako kontratuen azterketatik eta kapitulu honetan exekutututako gastuen lagin batetik ondorioztatzen da Kirol Patronatuak modu arrazoizkoan betetzen duela kontratazioaren arloan indarra duen araudia.

VI.8.3. Musika Eskolaren Patronatua

Musika Eskolaren Patronatuak Musika Eskolaren kudeaketaren zerbitzua ematen du, eta honakoen gisako jarduerak garatzen ditu: instrumentazioa, entzunaldiak, kontzertuak eta abar. patronatuak bere plantilla organikoa eta bere langileak dauzka: 2013ko abenduaren 31n, 13 langile finko eta aldi baterako lan-kontratu duen pertsona bat dira.

0,50 milioi euroko gastuak dauzka, zeinak ia guztiz langile-gastuei baitagozkie.

Diru-sarrerei dagokienez, 0,50 milioi, funtsean, honakoetatik datoz:

Kontzeptua	Kopurua
Matrikulak eta jaso-agiriak	192.408
Udalaren diru-laguntza	230.608
Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza	62.733
Enpresa pribatuen diru-laguntza	10.000

Patronatuak diru-sarrera berekiekin gastuen ehuneko 39 ordaindu ditu, eta 2013ko ekitaldian, berriz, ehuneko 43 ordaindu zituen.

Txosten hau eman da araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren, Jesús Muruzabal Lerga auditore jaunak proposatuta, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2016ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrazio-kudeaketako maila ertaineko teknikari lanpostu bat oposizio bidez eta txanda irekian betetzeko.

Izangai onartuen behin-behineko zerrenda

Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren 20/2016 ebazpena, maiatzaren 12koa, zeinaren bidez onesten baita onartuen zerrenda aipatu deialdian .

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrazio-kudeaketako maila ertaineko teknikari lanpostu bat oposizio bidez txanda irekian betetzeko deialdiak, 2016ko apirilaren 1eko 62. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuak, 5. oinarrian xedatuari jarraituz, ERABAKI DUT:

1. Izangai onartuen behin-behineko zerrenda onestea. Hona:

Izen-abizenak	Ezgaitasuna = > % 33	Egokitzea eskatzen du
---------------	-------------------------	--------------------------

Adrián Lezano, Javier		
Aguado Orta, Ignacio		
Aguayo Benito, María José		
Aguirre Hervas, María José		
Aisa Martínez, Irati		
Albistur Goñi, Aranzazu		
Almazor Iribarren, María Teresa		
Altuna Pascual, Iosu		
Alvarez De Eulate Pagola, Inés		
Amondarain Bargada, Maider		
Ansuátegui Garde, Estibaliz		
Antoñana Garralda, David		
Arazo Iglesias, Sara		
Arbella Murillo, Roberto		
Ardanaz Asiain, María Gema		
Arguis Sanz, Marta		
Arizcun Gonzalez, Lorena		
Armendariz Recalde, Araceli		
Artola Senar, Garazi		
Asurmendi Salvide, Miguel		
Ayechu Redín, Helena		
Ayensa Saldias, Eurne		
Ayesta Zardoya, Eurne		
Azcarate Auzqui, Beatriz		
Aznarez Alvarez, Miguel Valeriano		
Baigorri Vázquez, Francisco Javier		
Barberena Jimenez, Ana Isabel		

Izen-abizenak	Ezgaitasuna = > % 33	Egokitzea eskatzen du
---------------	-------------------------	--------------------------

Beorlegui Iragui, Raquel		
Bernardi Pina, Elaine		
Binaburo Gómez, Sandra		
Blanco Lozano, Bernardino		
Cabello Lecea, Jorge		
Castejón Munarriz, Silvia		
Castro Hinojosa, María Blanca		
Catalán Alcocer, María Cristina		
Catalan Equisoain, Noemi		
Cebrian Martín, Jon Koldo		
Chocarro Goñi, Francisco Javier		
Cuello Otero, Paulina María		
De La Fuente Sampedro, Beatriz		
De Vicente Olmedo, Maite		
Diaz Fernández, Ana Isabel		
Dominguez Berges, María Rosa		
Dominguez Goicoechea, Mikel		
Donazar Andres, Jesús Victor		
Echappare Ursua, Estibaliz		
Echarte Zambrano, Maite		
Echauri Arana, José Javier		
Echeverría Martínez, María		
Egea Huarte, Leyre		
Egozcue Recalde, Olga		
Elizondo Leiva, Montserrat		
Erce Iturgaiz, María		
Erro Armendariz, Ion Iñaki		
Erviti Ilundáin, Marcos		
Fernandez Urtasun, Belén		
Fuentes Urriza, Gonzalo		
Furlan Garate, Nadia		
Gainza Ordoqui, Jose María		
Galbete Zabala, María Cristina		
Galech Barricat, Laura		
Garate Esain, Begoña		
Garcia Fuentes, María Dolores		
García Leranoz, Elisa		
García Sánchez, Isabel María		

Izen-abizenak	Ezgaitasuna = > % 33	Egokitzea eskatzen du	Izen-abizenak	Ezgaitasuna = > % 33	Egokitzea eskatzen du
Gil Resano, Maite			Lecumberri Bruna, María de Iranzu		
Giral Anaya, Leire			León Manero, Amaya Consuelo		
González De Castejón			Lora Mingote, Ana Isabel		
Hermoso, María Jesús			Loyola Muro, Maitane		
González Huarte, Iñaki			Manrique Aguado, Borja		
González Menéndez, Ricardo			Manrique Sarasola, Maitane		
González Rodríguez, Mónica			Mañeru Madorran, Marta		
González Ulibarrena, Amaia			Mariñelarena Galarza, Izaskun		
Goñi Cenoz, María Asunción			Marquina Salinas, Ana Isabel		
Goy Gurpegui, Rebeca			Marquinez Legarrea, Vanesa		
Goya Ardanaz, Jon			Martínez Arauzo, Cristina		
Goyeneche San Adrián, Iciar			Martínez Oqueransa, José Antonio		BAI
Gracia Martínez, Irene			Martos Martos, Encarnación		
Gurpegui Muro, Joseba Mikel			Melero Mendioroz, Cristina		
Gurrutxaga Errandonea, Igor			Mendive Santos, Javier		
Guruciaga Reparaz, María			Merino Fernández, Raúl		
Hermoso De Mendoza			Merino Lorea, Iñigo		
Sainz De Ugarte, Jesús Manuel			Merino Salón, Elena		
Hernandez Armendariz, Arturo			Miranda Lizarraga, Estibaliz		
Hernandez Morillas, Nekane			Montalvo Arenzana, Inmaculada		
Hernández Ostiz, Sandra			Moreno Igoa, Cristina		
Hernández Pérez, Ana Pilar			Moriones Sanz, José Antonio		
Horstmann, Natalia Consolación			Mugica Alsua, Bakartxo		
Huarte Mendicoa Izu, Gabriel Ambrosio			Muro Barbarin, Mikel		
Huartemendía Goñi, Gema			Navarro Aristorena, Aitor		
Ibañez García, Miguel			Navarro Pérez, Saioa		
Ibarrola Labiano, Marta			Nogales García, Carmen		
Ichaso Ardanaz, Daniel			Ollo Ros, María Mar		
Ilundain Ilundain, Beatriz			Oscariz Eraso, Diana		
Indurain Valencia, Isidro			Otazu Larrasoña, Uxua		
Iraizoz Olaetxea, Arkaitz	BAI	BAI	Palomo Mateos, Sonia		
Iribarren Recarte, Itziar			Pascual Suárez-Bustamante, María José		
Irisarri Andueza, María Aranzazu			Paz Barea, Laura		
Irureta Nemours, Angel María			Peña Lorente, Izaskun		
Iturri Villanueva, Beatriz			Perez Figueroa, Ivan		
Iturria Ayerra, María Nieves			Pérez Navascués, Francisco Javier		
Izco Cabezón, María Carmen			Pezonaga Jauregui, Ana María		
Jaso Echeverría, Miren			Posadas Ramón, Izaskun		
Jiménez Pellejero, María Esther			Redondo Ruiz, Ekiñe		
Juanicotena Obregozo, Amaia			Renedo Varela, José Ignacio		
Lainez Insausti, Úrsula			Ripa Jorda, Laura Emilia		
Landivar Roque, Irantzu			Rodríguez Alonso, María Teresa		
Larequi Apestegui, Nerea			Rojas Goicoeandia, David		
Larumbe Cía, Iñaki			Ruiz De Eguino Martínez, Beatriz		

zen-abizenak	Ezgaitasuna => % 33	Egokitzea eskatzen du
Sabalza Navallas, Marta		
Samper Narvaiz, Alicia		
San Martín Rezusta, Ana		
Sánchez Pielago, Jaime		
Sertucha Azcárate, Aitziber		
Servián González, Eva María		
Silvestre Manso, Ascensión		
Sola Lerga, María Laura		
Solanilla Navas, José Antonio		
Soria Martín, Christian		
Soto Ortigosa, Iranzu		
Teilleri Vicondoa, Silvia		
Ugarte Uson, María		
Ungureanu, Mariana-Mihaela		
Urbiola Laparra, Estibaliz		
Urtasun Díaz, Rosana		
Urtaza Bilbao, Ion Koldobica		
Vadillo Gavari, María Cristina		
Vega López, Begoña		
Vicente Cillero, Mainer		
Vidondo Aznar, María José		

zen-abizenak	Ezgaitasuna => % 33	Egokitzea eskatzen du
--------------	------------------------	--------------------------

Villafranca Barceló, Gema Manuela
 Villar Hernández, Silvia
 Yerro Yerro, Félix
 Zabalza Zamarbide, José Eduardo
 Zuasti Pagola, Beatriz

Ez dago izangai bazterturik.

2. Agintzea behin-behineko zerrenda hau argitaratu dadin Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean, Nafarroako Parlamentuko iragarki-oholean eta www.parlamentodenavarra.es webgunearen "Transparencia/Listas y convocatorias personal/Convocatorias públicas de personal/Ejercicio 2016" atalean.

3. Ebazpen hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoko **hamar egun balioduneko epean**, interesdunek egoki jotzen dituzten erreklamazioak aurkeztu ahalko dituzte behin-behineko zerrendaren aurka, eta akatsik egin badute, haiek zuzendu.

Iruñean, 2016ko maiatzaen 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza